

Foru Araua

# Araugintzako herri-ekimena



 **Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral



**Erraz irakurtzeko**  
edizioa

Koordinatzailea: Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusia. Estrategia Digital eta Korporatiboaren Kabinetea.

Irakurketa errazerako egokitzapena: Blanca Mata (Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza)

Diseinua eta ilustrazioak: Mercedes Corretge



Logotipo honek identifikatzen ditu IFLAk (International Federation of Library Associations and Institutions) eta Inclusion Europe-k irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonen zuzendutako materialentzat ezarritako nazioarteko gidalerroak jarraitzen dituzten materialak. Agiri hau Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza-k berrikusi du, eta berak abalaten du.

Lehenengo edizioa: 2023ko Otsaila

© Bizkaiko Foru Aldundia- Diputación Foral de Bizkaia

[www.bizkaia.eus](http://www.bizkaia.eus)

© Ilustrazioenak: M. Corretge

Lege-gordailua: BI 208-2023

# Foru Araua

# Araugintzako herri-ekimena



**Erraz irakurtzeko** edizioa

# Aurkibidea

## SARRERA ————— 5. orria

## ARAUGINTZAKO HERRI-EKIMENA ————— 7. orria

- **HERRITARRAK:** Nork ipini dezake abian ekimena? ..... 7 eta 8
- **GAIAK:** Zer gairi buruz izan daiteke ekimena? ..... 7 eta 8
- **PROZEDURA:** Nola aurkezten da ekimena? ..... 8 eta 9
  - Proposamena eta sinadurak
  - Aurkezpen-idazkia
  - Epealdiak
- **BATZORDE SUSTATZAILEA** ..... 9 eta 10
  - Ardurak
  - Parte-hartzaileak eta ordezkariak
- **IZAPIDETZEKO ONARTZEA** ..... 11
  - Batzar Nagusietako Mahaia
  - Publikotasuna
- **IZAPIDETZEKO EZ ONARTZEA** ..... 12
  - Ez onartzeko arrazoiak
  - Konstituzio Auzitegiaren babesak
- **SINADURAK BILTZEA**..... 13
  - Prozedura
  - Autentifikazioa
  - Epealdia, egiaztatzea eta zenbatzea

## BATZAR NAGUSIETAN IZAPIDETZEA ————— 16. orria

- **ARGITARATZEA** ..... 16
- **PROPOSAMENAREN DEFENTSA** ..... 16
- **BESTE BATZUK:** Batzar Nagusiak desagitea, gastuen konpentsazioa, eta datu pertsonalen babesak ..... 16 eta 17

# Sarrera

Dokumentu hau Bizkaiko **Batzar Nagusiek** onetsitako araugintzako herri-ekimenari buruzko Foru Arauaren erraz irakurtzeko moduko bertsioa da. 2023ko otsailaren 2an jarriko da indarrean.

Gai honi buruzko 1985eko foru araua eguneratzen du. Foru arau honen bidez Bizkaiko Foru Aldundiak sustatu nahi du bizkaitarrek parte hartzea gai publikoetan, sistema politiko demokratikoaren funtsezko elementua dela uste baitu.

Araua egokitu egin da herritar guztiek erraz irakurri dezaten.

## ■ **Herritarrek gai publikoetan parte hartzea: zergatik da arau hau garrantzitsua?**

Zenbait araudik ezartzen duten bezala, herritar guztiek beren lurraldeko bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean parte hartu ahal izatea sistema demokratikoen zutarrietako bat da.

Herritarrek parte hartzeko tresnetako bat **araugintzako herri-ekimena** da.

Horren bidez herritarrek zuzenean hartu dezakete parte beren ustez beharrezkoak diren gaiak, pertsonen bizitzan eragina dutenak, antolatzeko arauak proposatzen eta prestatzen.

**Batzar Nagusiek (BN):** Bizkaian dagoen erakunde gorena da. Bizkaiko herritar guztiak ordezkatzeko dituen organoa da. Bizkaiko Legebiltzarraren modukoa da.

Tresna honen erabilera arautu behar da; izan ere, alderdi politikoen egitekoa errespetatu behar da, herritarren borondatea ordezkatzeko organo nagusiak baitira. Nolanahi ere, herritarrek aukera eduki behar dute alderdi politikoen ekimenekoak ez diren arauak proposatzeko.

Orain arte araugintzako herri-ekimena arautzen izan duen foru araua 1985ekoa da. Harrezkero 35 urte joan dira, gizartea aldatu da, bai eta Administrazioaren eta herritarren arteko harremanak eta komunikatzeko moduak ere.

Horregatik, arau hori egokitu eta eguneratu behar da irisgarritasuna hobetzeko, izapideak azkarrago egiteko, eta kanal digitalak erabiltzeko, baina **arrakala digitala** ahaztu gabe, hau da, kanal presentzialak mantenduta.

#### **Arrakala digitala:**

Teknologia berrietara sartzeko eta erabiltzeko pertsonengan edo kolektiboengan sortzen den desberdintasun-egoera.

### ■ **Zein da arauaren helburua?**

Arauaren helburu nagusia da Batzar Nagusietan araugintzako herri-ekimenak aurkezteko prozedura erraztea eta orain baino muga gutxiago egotea.

Horretarako, honako hau proposatzen da:

- Araugintzako herri-ekimena aurkezteko behar diren sinadurak gutxiago izatea.
- Ekimenaren izapideak baliabide elektronikoak erabiliz egiteko erraztasunak ematea.
- Ekimen bat onartzen ez denean Konstituzio Auzitegian **babes-errekurtsoa** aurkeztu ahal izatea.

**Errekurtsoa:** Erakunde, epaile baten eta epaimahai baten erabakiaren kontra pertsona batek jartzen duen erreklamazio edo kexa. Kasu honetan, **babes-errekurtsoa** da uste delako Konstituzioak jasotzen dituen oinarritzko eskubideak hautsi direla. Gai publikoetan parte hartzeko eskubidea EKko (23. artikulua) oinarritzko eskubidea da.


# Araugintzako herri-ekimena

## HERRITARRAK: Nork aurkez dezake ekimena?



Bizkaiko udalerrietako batean erroldatuta dauden 16 urtetik gorako euskal herritarrek, Europar Batasunekoek zein atzerriko herrialdeetakoek.

## GAIAK: Zer gairi buruz izan daiteke ekimena?




Araugintzako herri-ekimenaren gaia zeinahi izan daiteke, honako hauek izan ezik:

- Batzar Nagusiek arautzeko eskumenik ez duten gaiak.
- Zergak.
- Bizkaiko foru erakundeen jarduna eta antolamendua.
- Bizkaiko aurrekontuak eta beren aldaketak eta kontu orokorrak.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumeneko Lurralde Plan Partzialak eta Lurralde Plan Sektorialak.
- Toki-erakundeen finantza-tutoretzaren araubide orokorra.
- Bizkaiko antolamendu eta zatiketa politiko-administratiboa.
- Hauteskundeen araubidea (Lurralde Historikoen Legea, 7.a) 1 eta 2).
- Bizkaiko legegintzako ekimena Eusko Legebiltzarrean.
- Araugintzako herri-ekimenaren araudia.

- Onesteko edo aldatzeko adostasun berezia behar den foru arauen bidez araututako gaiak.
- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean edo nazioarteko itunetan bildutako giza eskubideen kontrakoak, eta legerian edo arauetan bildutako eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial edo kulturalen kontrakoak.

## PROZEDURA: Nola aurkezten da ekimena?



### • Proposamena eta sinadurak

Araugintzako herri-ekimena arau-proposamenaren bidez aurkeztu behar zaio **Batzar Nagusietako Mahaiari**.

Proposamena **5.800 pertsonak sinatu behar dute gutxienez**.

Sinatzaileak Bizkaiko udalerrietako batean erroldatuta egon behar dira.

**Batzar Nagusietako Mahaiari:** Batzar Nagusiak zuzentzen dituen organoa da. 5 pertsonak osatzen dute: lehendakariak, 2 lehendakariordek eta 2 idazkarik.

### • Aurkezpen-idazkia:

- Atal batean azaldu behar da zergatik uste duten sinatzaileek proposamena izapidetu behar dela: aurrekariak, arrazoiak, eta abar.

Horren aldeko agiriak, azterlanak eta antzekoak erantsi daitezke.

- Ekimenaren aldeko babesak eta finantzabideak azaldu behar dira. Prozesuan zehar eguneratuko da.

- **Batzorde Sustatzaileari** buruzko datu hauek eman behar dira:

**1.** Kideen zerrenda (bakoitzaren datu pertsonalak eta sinadura, fisikoa zein elektronikoa, zehaztuta).

**2.** Ordezkarria eta beraren ordezkia.

**3.** Eraketaren eta egoitzaren notario-akta.

- Euskaraz edo gaztelaniaz idatzi behar da.

**Batzorde sustatzailea:** Ikus informazioa aurrerago (9. orria).


- **Epealdiak**

Araugintzako herri-ekimena noiznahi aurkez daiteke

Batzar Nagusiek bilkurak egiten dituzten aldietan.

Aldi horietatik kanpo, prozeduraren epealdiak ekimena aurkeztu eta hurrengo bilkura-aldiko lehen egunetik aurrera zenbatuko dira.

## BATZORDE SUSTATZAILEA



- **Ardurak**

- Ekimena gardentasunarekin finantzatzea, eta jasotzen diren funtsak beren helburuetara erabiltzea.
- Datu pertsonalak biltzea, gordetzea eta behar bezala erabiltzea.
- Kanpainetan inorengatik txarto ez esatea, inor ez iraintzea, gezurrik ez esatea, eta adierazpen mingarririk ez egitea.
- Ardura hauen ondoriozko eskubideak babestea eta betebeharrak betetzea.  
Hori egin ezean, sustatzaileek zehapenak jaso ahal izango dituzte.

- **Parte-hartzaileak eta ordezkariak**

Batzordean adin nagusiko 3 pertsona egon behar dira gutxienez.


Batzordean eta ordezkarien artean emakumeak eta gizonak orekatuta egon behar dira.

Honako erakunde hauetako kideak ezin dira egon ekimen bateko batzorde sustatzailean: Bizkaiko Foru Aldundia, Batzar Nagusiak, Eusko Jaurlaritza, Gorte Nagusiak, Europako Parlamentua eta udalak.

Batzordeak ordezkeri bat izendatu behar du bere izenean jarduteko eta hitz egiteko, eta horren ordezkoa ere bai.

Ordezkeriak eta beraren ordezkoak Batzordearen eta erakundeen arteko lotura-lanak egingo dituzte prozesu osoan.


Batzordeak ekimena bertan behera utzi ahal izango du aurkezten denetik Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean argitaratu arte.





# IZAPIDETZEKO ONARTZEA


## Batzar Nagusiaren Mahaia



## Jakitera ematea

Erabaki guztiak:

### 1. Batzorde Sustatzaileari jakinarazten zaizkio



### 2. Batzar Nagusiaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen dira





## IZAPIDETZEKO EZ ONARTZEA

### • Arrazoiak

- Ekimena honela **arautu ezin den gai** bati buruzkoa izatea.
- **Prozeduraren** baldintzak ez betetzea edo akatsak ez zuzentzea.
- Proposamenean elkarrekin lotuta ez dauden gaiak aipatzea.
- Batzar Nagusietan gai berari buruzko proiektu edo proposamen bat izapidetzen egotea.
- Agintaldi berean aurkeztutako beste ekimen bat bezalakoa edo oso antzekoa izatea.

**Baztertutako gaiak:**  
Ikus 7. eta 8. orriak.

**Prozedura:**  
Ikus 8. eta 9. orriak.

### • Konstituzio Auzitegiaren babesa

Ekimen bat izapidetzeko onartzen ez bada, Batzorde Sustatzaileak babes-errekurtsoa aurkeztu ahal izango du Konstituzio Auzitegian (KA).

KAk erabaki dezake:

- Ez dagoela arrazoirik ekimena ez onartzeko; ondorioz, prozedurak aurrera egingo du.
- Forma-akatsak daudela; orduan, Batzar Nagusietako Mahaiak Batzorde Sustatzaileari adieraziko dio 30 eguneko epealdia daukala erabakitzeko ekimena bertan behera uzten duen edo aldatu eta mantentzen duen.



## SINADURAK BILTZEA

### • Prozedura

Arau-proposamena onartu ondoren:

#### - Batzar Nagusietako Mahaik **EAEko Hauteskunde Batzordeari**

jakinaraziko dio, sinaduren bilketa kontrolatzeko eta bermatzeko.

#### - **EAEko Hauteskunde Batzordeak** Batzorde Sustatzaileari jakinaraziko dio sinadurak biltzen has daitekeela.

#### - **Batzorde Sustatzaileak** Hauteskunde Batzordeari aurkeztuko dizkio sinadurak biltzeko **orriak**.

#### - **EAEko Hauteskunde Batzordeak** sinadura-orriak zigilatu eta zenbakituko ditu, eta 72 ordu pasatu baino lehen Batzorde Sustatzaileari helaraziko dizkio berriz.

#### - **Sinatzaileek** honela sinatuko dute: izena, bi abizen, NANA edo baliokidea, botatzeko erroldatuta dagoen helbidea eta udalerria. Pertsona bakoitzak behin bakarrik sinatu dezake. Orri bakoitzak udalerrri bakarrekoa pertsonen sinadurak jasoko ditu.

#### -**Pertsona sustatzaileek** bi modutan bil ditzakete sinadurak: paperean edo sinadura elektronikoen bidez (internet). Batera zein bestera, sinadurak modu berean tratatuko dira prozeduran eta autentifikazioan.

**EAEko Hauteskunde Batzordea:** Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskunde-prozesuak gardenak direla bermatzen duen organoa da.

Orrietan arauaren proposamenaren testua (euskaraz edo gaztelaniaz) agertu behar da. Testuak 3 orrialde baino gehiago baditu, erantsiko da zigilatutako eta zenbakitutako orri independenteetan eta sinadura jasotzen duen orriari batuta. Orriak jasoko ditu sinaduren erregistroari eta argitalpen eta sinadura elektronikoko webguneei buruzko erreferentziak.

## • Autentifikazioa

Honako hauek autentifikatu ditzakete sinadurak: notarioak, Justizia Administrazioaren letraduak edo sinatzailea erroldatuta dagoen udalerriko idazkariak. Autentifikazioan data jarri beharko dute eta orri bakoitzean zenbat sinadura dauden zehaztu.

Sinadura gehienak web bidez bildu badira, Batzorde Sustatzaileak horren berri eman beharko du ekimenaren aurkezpenean.

.....  
 : Egiaztatuta egon behar den  
 : sistema Europar Parlamentuko  
 : 22/2011 Erregelamenduaren  
 : arabera.

## • Epealdia, egiaztatzea eta zenbatzea

EAEko Hauteskunde Batzordeak sinadura-bilketa has daitekeela jakinarazten duenetik **Batzorde Sustatzaileak** **4 hilabete** edukiko ditu honako hauek egiteko:

.....  
 : Batzordeak beste 2  
 : hilabetez luza dezake  
 : justifikatutako ezinbesteko  
 : arrazoia gertatzen bada.

- Batzar Nagusietako Mahaiari sinadura-orriak eman, paperean edo formatu elektronikoa (sinadura elektronikoa edo web bidez). Bereizita aurkeztu beharko dira.
- Behar diren 5.800 sinadurak lortu baditu, Batzar Nagusietako Mahaiari eskatu epealdia aldeztetik amaitzeko. Mahaiak eskaera onartzen bada, Batzorde Sustatzaileari eta EAEko Hauteskunde Batzordeari jakinaraziko die.


Epealdi horretan sinadurak aurkezten ez badira, ekimena azkenduko da.

## 2 eguneko epealdian Batzar Nagusietako Mahaiak:

- Sinadura-orriak bidali beharko dizkio EAEko Hauteskunde Batzordeari, sinatzaileak Bizkaiko udalerrietako batean erroldatuta dauden ala ez egiaztatzeko.

## EAEko Hauteskunde Batzordeak:

- Batzorde Sustatzaileak sinadurei buruz egiten dituen informazio- eskaerei erantzun beharko die.
- Baldintzak betetzen ez dituzten sinadurak balio gabetzat jo eta zenbatu gabe utzi beharko ditu.
- Sinadurak zenbatu beharko ditu hilabeteko epealdian.
- Batzar Nagusietako Mahaiari baliozko sinaduren zenbatekoa ziurtatu beharko dio eta sinadura-orriak ezabatu beharko ditu.



# Batzar Nagusietan izapidetzea

- **Argitaratzea**

Behar diren sinadurak bildu direla ziurtatu ondoren

**Batzar Nagusietako Mahaiak** aginduko du ekimena argitaratzeko eta gainerako arau-proposamenak bezala izapidetzeko.

- **Proposamenaren defentsa**

**Batzorde Sustatzaileak** proposamena defendatu ahal izango du Batzar Nagusien osoko bilkuran.

Horretarako, ordezkari bat izendatuko du edo Batzar Nagusietako **ahaldun** bati edo batzuei eskatuko die proposamena defendatzeko.

Ahaldunek ez badute onartzen ekimena defendatzea, Mahaiak kideetako bat izendatu beharko du defendatzeko.

**Ahaldunak:** Batzar Nagusietan alderdi politikoak ordezkatzeko dituzten pertsonak. Batzarkide ere esaten zaie.

- **Beste batzuk:**

- **Batzar Nagusiak desegitea.**

Araugintzako herri-ekimena bat izapidetzen ari dela Batzar Nagusiak deseginez gero, ekimena ez da bertan behera geratuko; ganbera berria eratzen denean, prozedura berriro martxan jartzen da eta Mahaiak erabakitzen du zein fasetatik jarraituko duen.

- **Gastuen konpentsazioa.**

Batzorde Sustatzaileari proposamena prestatzeak eta zabaltzeak eta sinadurak biltzeak eragindako gastuak (frogatuak) ordainduko zaizkio Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontuen kargura, muga honekin: 12.000 euro gehienez.

..... **(Foru Arauaren lehen xedapen gehigarria)**  
 Bizkaiko Foru Aldundiak izapidetutako herri-ekimen arauemaileen diru ordaina sartuko du hurrengo ekitaldiaren Aurrekontu Orokorretan gastu-betebehar gisa.

### - **Datu pertsonalen babesari.**

Ekimenaren sustatzaileek eta gainerako agintari eskudunek datu pertsonalen babesari buruzko **legeria** bete beharko dute.

.....

2016ko apirilaren 27ko  
Europako Parlamentuko eta  
Kontseiluko 2016/679 EB  
Erregelamendua.  
3/2018 Lege Organikoa,  
2015ekoa Babeseko  
abenduaren Datu  
pertsonalak eta eskubideen  
bermea digitalak.

### **Batzorde Sustatzaileak**

- Bermatu beharko du bildutako datu guztiak ekimenaren alde egiteko baino ez direla erabiltzen.
- Sinadura-bilketarekin lotutako material guztia ezabatu beharko du: sinadura-orriak Hauteskunde Batzordeari ematen dizkionetik hilabete pasatu baino lehen. Sinadurak biltzeko epealdian behar diren sinadura guztiak lortu ezean, hilabete pasatu baino lehen.
- Neurri tekniko eta antolamendu-neurri egokiak aplikatzea datu pertsonalak nahi gabe edo legez kontra ez ezabatzeko, galtzeko edo aldatzeko, eta baimenik gabe zabaltzeko edo haietara sartzeko.

### **EAEko Hauteskunde Batzordeak:**

- Baliozko sinadurak behar beste ez badira, sinadura-orriak ezabatu beharko ditu.